



Klax erreinuko heroia

Inés Cuevas Aparicio

EUSKARA NARRAZIOA 14-16 URTE

1. Akzesita

Klax erreinuko heroia izango nintzen. Bertako soldadurik gazteena bihurtzeko bidean nengoen eta nire azken froga hura zen: kontrako herriaren erregearen alaba maitatua hiltzea, Alpitz sirena. Gutxitan ateratzen ziren ur-ertzera izaki hauek. Azkarra izan behar nintzen. Gure areriorik boteretsuenak izan ziren denbora luzez. Nire lurraldean txikitatik irakatsi ziguten gaiztoak zirela. Hilgarriak.

Basoan nire eginkizuna betetzeko estrategia burutzeko asmoz ur-ertz baten bila nenbilela, negar mingarri bat entzun nuen. Soinua nondik zetorren jakin nahi nuen. Izaki bat ikusi nuen laku ertzean eseria: ile luze eta urrezkoa zuen, gainera, koro bat zeraman, oskolez egina zirudiena. Pixka bat hurbiltzea erabaki nuen eta bihotza gelditu zitzaidan arrain buztana zuela ikustean. Alpitz izan behar zuen. Hori izan zitekeen nire aukera bakarra printzesa hiltzeko. Poliki hurbildu nintzen eta sastakaia nire poltsikotik atera nuen hotsik egin gabe. Baina arma hura guztiz altxatua nuenean, berriro gorde nuen. Ezin nion hori egin negarrez zegoen sirena hain lirain bati. Ez nintzen munstro bat. Bat-batean, biratu zen, eta ni ikusi bezain laster urperatu zen.

–Ez, ez dizut minik emango, bueltatu, mesedez –oihu egin nuen. Burua uretatik atera zuen.

Denbora dexente eman zuen niri kontatzen nola bere aitak ez zuen gaztelutik ateratzen utzi nahi. Gizakiok azpilanetan geundela uste zuen, gure hurrengo eraso antolatzen, isilik egon omen baikinen denbora luzeegiz. Duela hilabete edo egon zen bere gelan giltzapeturik, guardia batzuen kontrolpean, preso bezala. Modu horretan ez zuen inoiz bere ametsik gogokoena bete ahal izango: mundua ezagutzea. Gure bi lurraldeetatik haratago zerbait gehiago zegoela sinisten zuen. Niri ere gustatzen zitzaidan ideia hori.

Berak bere erreinuari buruz hitz egin zidan, eta nik nireaz. Orduak joan zitzaizkigun hegan.



–Ez dakit nire aitari zuengandik zerk beldurtzen duen. Oso izaki eskuzabalak eta atseginak dirudizue gizakiak –esan zuen.

Ni gorritu nintzen eta orduan nire izena entzun nuen zuhaitzen artean. Nire nagusia zen. Ez nuen Alpitx printzesa utzi nahi, berarekin hizketan jarraitu nahi nuen.

–Joan beharko zenuke –gomendatu zidan sirenak nire larritasuna ikusirik–. Bihar bilduko gara berriro? –proposatu zidan nire eskuari helduz, eta nik buruarekin baietz esan eta alde egin nuen.

Gau hartan denbora luzez pentsatzen aritu nintzen: garaiz nengoen dena ahazteko, aintziran pasatutakoa atzean uzteko eta sirena hurrengo egunean hiltzeko, inoiz ikusiko ez zen soldadurik onena bihurtuz. Famatu eta dirudun bihurtuko nintzen. Klax erreinuko heroia izango nintzen. Nahiko nuen guztia edukiko nuen, baina zerbaitek zeregin hura gauzatzea eragozten zidan.

Biharamunean altxatu nintzen sirenarekin geratua nintzen lakura joateko intentzioarekin. Mahai gainean sastakaia zegoen nire zain. Zalantzaren aurrean hura hartu nuen eta basoan barneratu nintzen. Pauso arinekin mugitu nintzen, nire misioa ahalik eta azkarren burutzeko damutu baino lehen. Baina, bera urrunean ikusi bezain laster, lehengoan gertatu zen bezala, honetan ere ezin izan nuen arma zuria erabili eta poltsikoan sartu nuen berriro. Luzaroan mintzatzen egon ginen gure erresumei buruz. Biok ados geunden kontrako herriei buruzko aurreiritzi okerrak gainditu beharko zirela eta etorkizun batu bat eraikitzearen alde lan egin nahi genuela. Hala eta guztiz ere, nork egingo zien kasu gu bezalako gazte inozo batzuei? Berandutu zenean, etxerako bidean, sastakaia zuhaitzez inguratutako zoruan iltzatua utzi nuen berriro ez hartzeko asmoz.

Hurrengo egunetan nire jaunari gezurretan ibili nintzaion sirena hiltzeko misioarekin egun eta gauzez lanpetua egongo nintzela esanez. Egunak eta asteak pasa ziren, eta gutxinaka Alpitx eta biok elkar sakonki ezagutu genuen. Gero eta hobeto ulertzen genion elkarri, oso antzekoak ginela ohartuz. Ezkutuan elkartzen jarraitu genuen eta sirenarekin maitemindua nintzela ohartu nintzen. Baina,

zoritarrez, hori maitasun debekatua izango zela bagenekien biok. Elkarrenganako sentimenduak geneuzkan, aldiz, une okerrean bizi ginen. Dena dela, erronkak gustatzen zitzaizkidan, zailtasunek erakartzen ninduten eta ezinezkoak hartzen ninduen.

Goiz horietako batean, nire jauntxoak oso serio norabaitera eramango ninduenaren berri eman zidan, baino ez zuen gehiago zehaztu. Nahasita nengoen. Posible ote zen sirena eta bion artekoa deskubritu izana? Bi zaldik bultzatutako gurdi batean igo eta bidaia isilik egin genuen.

Nire harridurarako, gure herriko gaztelura heldu ginen. Erreginak nire misioari buruz hitz egin nahi omen zuen. Lau hilabete neramatzan emaitzarik gabe eta hurrengo astean egin beharra ez betetze-kotan ondorio larriak izango nituela mehatxu egin zidan. Soldadu kargua galtzeaz gain, traidoretzat hartuko ninduten ere, eta horregatik nire gutxieneko zigorra argia berriro ez ikustea izango zen.

–Hala ere, badakigu printzesa sirena ez dela askotan azaleratzen, beraz, gure arbasoek izaki horien aurkako gerretan erabilitako arma boteretsuena zure esku utziko dugu: "Sirena Urdina" –gehitu zuen erreginak ezpata urdin distiratsu txiki bat eskainiz–. Oso berezia da: hiru ilargi urdinetan behin baino ez du funtzionatzen, hau da, gaur gauean izango da unea. Edozein sirenak honen aurrean haren borondate propioa galduko du, baldin eta erabiltzen duen soldadua garaiko zintzoena den –azaldu zidan–. Klax erreinuko heroia izango zara –ez nuen beste aukerarik.

Gau hartan basoan barneratu nintzen, non Alpitzeekin elkartu nintzen.

–Zer duzu? –galdetu zidan nire malkoak ikustean.

Honetan ez nuen ezpata ezkutatu, baizik eta bere aurrean jarri. Tupustean bere irribarrea desagertu zen, honen orde z bere barruko tristura azalduz. Orduan, begiak itxi nituen ezpata magikoa bere bi-hotzera zuzenduta. Baina, nire harridurarako, oztopo ikusezin moduko batek arma aurrerago mugitzea eragozten zidan.

–Ez al dizu inork jakinarazi arma hori soldadu zintzoenak bakarrik erabiliko duela eraginkortasu-



nez? Badakit zuk ez duzula baldintza hori betetzen, ni bezala, erreinu baten kontrolpean bizi baitzara –adierazi zuen Alpitzek. Ez zuen ez tristurik ez amorrurik azaldu, gertatutakoa espero zuela zirudien–. Zuk zeuk behin baino gehiagotan azpimarratu duzu bata bestearentzat perfektuak garela, baina ez denbora-lerro honetan. Espero dut hurrengo bizitza batean berriro topo egitea –bere tristura ezpainetan erakutsiz.

Jarraian, kamera batek geldoan filmatuko balu bezala, Alpitz sirena uretan itsasoratu zen ilargi urdinak argituta, ni lurreean garaitua utzita. Klax erreinuko heroia izan nahi nuen lehen, baina horrek zekarrena ikusita, nahiago traidore izatea.

